

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udako kontzertua

2007ko uztailaren 21ean - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

Juan Mari Beltran, Luis eta Jose Mari Astiasaran *Amasatik Arratera*

"Astiasaran anaiak" aspalditik oso ezagunak dira Trikitixa munduan. Luisek Eleuterio Tapiarekin eman zituen soinua jotzen aurreneneko urratsak eta garai hartan Jose Mari Eleuterio berarekin panderoa jotzen zuen.

"Astiasaran Anaiak" bikote honek 1971. urtean Donostiako Trinitateko Plazan ospatutako Euskal Herriko Trikitilarien Txapelketan parte hartu zuen. Geroztik, hamaika herritan aritu dira urtez urte mota guzietako festa eta ospakizunetan.

Juan Mari Beltran hamaika urteekin Etxarri Aranatzeko Musika Bandan klarineta eta Txistularien taldean txistu eta danbolina jotzen zituen. Hamasei urte zituela euskal herri musikan eta soinu-tresna munduan hasi zen bere ibilbide luzea: Argia, Azala, Txanbela eta Goikoetxea-Beltran bikotean aritu da eta azken urteetan bere izenarekin. Hamar disko grabatu ditu eta beste talde eta musikarien disko askotan parte hartu du.

Astiasaran anaiak eta Juan Mari Beltran, Euskal Herrian garai batean erabilia izan zen soinua eta

dultzainaren taldea osatuz, aurreneko aldiz 1984an Tolosako inauterian jo zuten. Geroztik eta gaur arte bide luze bat egin dute elkarrekin. Beste toki askoren artean, hirukote hau urtetan

eta urtero Amasako Sanmartinetan aritu da. Hura izaten zen urteko egunik luzeena; goizeko sei-tako baserriz baserri "oilasko-biltzea"rekin hasi eta afal ondorengo bukaezinezko azken dantzaldia



bukatu arte.

2004ko apirilean Arrate Irratian egindako saiorako bederatzi piezaz osatutako konpaktua grabatu zen eta 2005eko uztailean egindako saiorako beste hamabi piezaz osatutako bigarrena. Arrate Irratian egindako bi grabazio hauek izan dira azken urtetan talde honi ospe handien eman diotenak eta hori izan da grabazio haietan erabilitako doinuekin "Amasatik Arratera" izeneko diskoa argitaratzeko arrazoia. Erromerietako hemeretzi dantza doinu hauek hirukote honen eskaintzaren zati txiki bat besterik ez da.

Formatia Flueraș

Basarabiako moldaviar lurraldeko musika



Basarabiako mugak Dniester eta Prut hiba-
iak dira, lehenengoa ekialdean eta mende-
baldean bigarrena. Izen horrekin ezagutzen
zen Moldaviako printzerriaren ekialdeko zati
bat, Errusiar Inperioak turkoei eskuratu ziena
1806-1812 gerratearen ondoren. Moldaviaren
beste zatiak, Wallachiarekin batuta
Errumaniako Erresuma osatu zuen 1859an.
Lehen Mundu Gerratearen ondoren
Besarabia independente bihurtu zen eta
Errumaniarekin batu zen, baina Bigarren
Gerratean Sobiet Batasunak bereganatu
zuen, Moldaviako errepublika sortuz. 1991an
berriro lortu zuen independientzia.

Erdialdeko eta Ekialdeko Europa batzen dira
Balkaniar penintsularekin Moldavian eta,
beraz, bere kulturak hiru zonalde horien era-
gin handiak jasotzen ditu. Moldaviak, Inperio
Otomanoaren menpe egon zenez, badauka
kultura turkiarraren eragina ere. Bestalde,
inguruko lurraldetaranzko eslaviarren eta
Transilvaniaranzko alemaniar eta hungaroen
migrazioek zantzu garrantzitsuak utzi dituzte
lurralde honen izaeran. Azken bi mendeotan

Mende bako
Europaren eragina ere
(bereziki Frantziarena
eta, neurri apalagoan,
Alemaniarena) gertatu
da.

Talde honteko kideak
moldaviar etorkinak
dira eta Logoñon elkar
ezagutu dira, han bizi
direlarik. Basarabiako
herri musikako hainbat
erritmo eta doinu klase
erakutsiko digute:
*Sirba, Hora, Batuta,
Polca, Doina,
Hostropat,*

Geamparale, Gopak, Banatane...

Tronpeta: **Ghenadii Boldisor**

Biolina: **Pavel Tiganas**

Akordeoa: **Daniel Olarasu**

Udako kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte
elkartean (Herri Musikaren Txokoaren ondoan)
musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta
dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait
lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15
euro.



kontzertu honen
laguntzaileak:

